

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko azaroaren 29a. IX urtea. 2.442 zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Berrikuntzaz beterik dator aurtengo Txuletaren Festa

Urteroko jatorduz gain, Euskal Herria plazan txekorra eta jai giroa izango dira, eta jarduerak egongo dira Tolosa & Co elkartearen eskutik ◊2



Festaren antolatzaileak, atzo, Zerkausiko aurkezpenean. LURKIZU

Jone Arrospide
Ibilaldi nordikoko irakaslea

«Oinarrizko zazpi pauso ditu, eta ibiltzeko teknika soil bat baino gehiago da»

Elkarrizketa ◊3

**Atekabeltzek
hegoamerikarrei
eskainitako festa
egingo du etzi**

Latinoamerikarren kultura eta gastronomiaren bidez, Leitzako etorkinak integrazioa dute helburu ◊7



A.MAZ

→ **Armarri berria dute Zizurkilen.** Zizurkildarrek aukeratu dute jada herriko armari berria eta udalak etzi egingo du irudia, ofizial. Hernandorena kultur elkar-teak urtebete egin duen lanak bere fruitua eman du beraz, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Armarri berriak hiru elementu ditu: mendia, zubia eta haritza. ◊4

2012
txuleta festa
tolosa
AB | 6 | 7 | 8 | 9

Hondakin organikoak auzokonpostaren bidez kudeatzeko deia

Larunbatean auzokonpostaren inguruko postua jarriko du Tolosa Zero Zaborrek, Trianguloan

I. Urkizu

Tolosa Zero Zabor taldeak auzokonposta egiteko proposamena luzatu die herritarrei, «hondakin organikoaren arazoari erantzuteko». Agerraldian azaldu dutenez, «Tolosaldeko beste zenbait herritan jada bideratzen ari diren zenbait egitasmo ikusita, eta Tolosako zenbait bizilagunek eskatuta», konposta egiteko sistema hau abian jartzea pentsatu dute taldeko kideek.

Tolosako Zero Zaborrek, auzokonpostajea «ahalik eta zabor gutxi sortzeko erabat lagungarria» izango dela nabarmendu du. «Hala nahi duten herritarrei hondakin organikoa norberak kudeatzeko aukera» emango dio sistemak, eta parte-hartzea ere sustatu duela uste dute kideek.

Horrela beraz, Tolosako Udalari eskaera «zuzena» egin nahi izan diote: «Egitasmo hau ahalbi-

detzen laguntzea nahi dugu, eta baita honen funtzionamendurako formazio ikastaroak antolatzeko ere, beste hainbat herritan egin duten bezala».

Era berean, Tolosa Zero Zabor taldeak izena emateko deia zabaldu nahi die herritarrei. Jada tolosar batzuek izena eman dutela azaldu dute, eta egitasmoan parte hartu nahi dutenek, bide bat baino gehiago izango dute: batetik, kultur etxean zerrenda bat ireki dute, eta eurekin zuzenean ere hitz egin daiteke. Azkenik, tolosazerozabor@gmail.com helbidera ere idatz daiteke izena emateko.

Konpostatzeaz informazioa

Larunbatean, abenduaren leian, Tolosa Zero Zabor taldeak postua jarriko du Trianguloa plazan.

Auzokonpostari buruzko informazioa eskainiko diete bertaratuei, eta bertan ere izango da programan izena emateko aukera. Gainera, konpostagailu txikiak ere erakustaldi txikiak ere egingo dituzte.

Azkenik, 12:00etan, konpostazeari buruzko hitzaldia izango da, Tolosako Oargi elkartearen egoitzan.

• tolosa@hitza.info



Zenbait tolosarrek izena eman dutela azaldu zuten kideek. I. URKIZU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibai Iriartek eta Hasier De los Riosok tolosarrentzako festa ere badela azpimarratu dute. I. URKIZU

Txuleta-aren Festaz gain, txekorra eta jai giroa izango dira Euskal Herria plazan

Abenduaren 6an Tolosa & Co elkarteak jarduerak antolatu ditu, eta zenbait denda zabalik izango dira

Itzea Urkizu

Abenduaren 6tik 9ra ospatuko dute, aurten, Tolosako Txuleta-aren Festa, eta berrikuntzaz beterik dator: larunbatean, hilak 8, Euskal Herria plaza izango da gune nagusia, eta goizetik hasita, ganadu azoka, bertsolariak, sagardo dastaketa, herri bazkaria, idi dema eta afaria izango dira bertan. Horrez gain, urteroko menuaz ere gozatu ahal izango da abenduaren 7an, 8an eta 9an.

Ibai Iriarte alkateak eta Hasier De los Rios zinegotziak azpimarratu dutenez, tolosarrentzako festa izango da txuleta-rena: «Herri bizi herritar biziok egiten dugu». Hala ere, «herria jendez betetzeko egitaraua» prestatu dutela nabarmendu dute, eta egun horietan zehar, Tolosa ondo pasatzeko gune bilakatzea nahi dute.

Horrela beraz, abenduaren 6an, eta Tolosa & Co merkatari eta ostalarien elkartearen lagun-

tzaz, hainbat jarduera antolatu dituzte: turistentzako trena ibiliko da herrian barrena, eta aeromodelismoa izango da 11:00etan Berazubini. Itsas-modelismoa, berriz, Zerkausian egingo dute, 12:00etatik aurrera. Arratsaldean, berriz, Hipo eta Tomax paila-zoen saioa antolatu dute merkatariak, 17:30ean, Zerkausian. Halaber, Tolosa & Co elkarteak harategien eskutik, burrunziti-oxoak eta hanburgesak bazkaltzeko eta afaltzeko aukera izango da.

Aipatzekoa da, asteroko azoka ostiralean izango dela, eta Zerkausiko postuak Trianguloa plazan jarriko dituzte.

Euskal Herria plaza, festa gune

Festa giroa goiz-goizetik, larunbatean izango da Tolosan. Izan ere, 10:00etatik 13:00era ganadu azoka antolatu dute Euskal Herria plazan: «Tradizioa berrikuntza bilakatuko dugu», azaldu du Iriartek.

Goizean zehar, sagardoa dastatzeko aukera ere izango da, bertsolariak eta trikitiaz lagunduta; Tolosa Gourmet eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 8 sagardogilek parte hartuko dute.

Bazkaltzeko, berriz, Betizu txekor bat erreko dute burrunzian,

eta horrez gain, salda, entsalada, errege opila, ura, sagardoa eta ardoa izango dira herri bazkariako menuan, 25 euroren truke.

Bazkalostean, azkenik, 17:30ak aldera, 3 idi pareren arteko dema ikusteko aukera izango da Euskal Herria plazan.

Aurreko urteetako Txuleta-aren Festetako menuaz ere gozatu ahal izango da, ordea, Tolosan; abenduaren 7an bazkarian nahiz afarian, abenduaren 8an afarian eta abenduaren 9an bazkarian eskainiko dute txuleta-aren menua. Larunbatean, bertako behi fri-soien txuleta eskainiko dituzte, eta igandean, berriz, idi txuleta dastatzeko aukera izango da.

Menuak 45 euroko prezioa izango du, eta honakoak izango da: esparragoak, kukuluak, urdaiazpikoa, txuleta, piperrak, xaxuak, teila eta zigarrotxoak, ura, ardoa eta sagardoa. Tolosako Orue, Burrunziti, Casa Julian eta Casa Nicolaseko parrilerok prestatuko dute guztia.

Otorduetako txartelak Tolosaldea Tourren eskatu beharko dira, 943 69 74 13 telefonora deituta, edo tour@tolosaldea.net helbide elektronikora idatzita, eta aipatzekoa da, Zerkausiko otorduetara joaten direnen artean Arabar Errioxako upategi batean asteburu bat pasatzeko aukera zozketatuko dutela.

Hasier De los Rios zinegotziak azaldu duenez, Zerkausiko jantokian, guztira, 1.200 edo 1.500 pertsona espero dituzte otorduetan: «Gure helburua jendea Tolosara erakarri eta bertan kontsumitzea da». Hau dela eta, Tolosa & Co elkarteak zenbait denda irekita izango dira abenduaren 6an.

• tolosa@hitza.info

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa duenak dei dezala honako telefonotara: 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

LAN ESKAINTZAK

Emakumea. Hiru ume zaindu eta etxeko lanetan aritzeko, emakume bat behar dugu Ibaran. Astean egun batzuetan lan egiteko da. Interesatuak, deitu 656 79 96 73 telefono zenbakira.

Jone Arrospide ◉ Ibilaldi nordikoko irakaslea

Yoga, elikadura eta emakumeen inguruko hainbat ikastaro eman ditu Jone Arrospidek Anoetan, azken urteetan. Larunbat honetan oinez ibiltzeko teknika osasuntsu bat erakutsiko die anoetarrei.

«Teknika honekin odola erosoago iristen da gorputzeko zati guztietara»

Asier Imaz Anoeta

Anoetako Udalak ibilaldi nordikoko ikastaroa antolatu du larunbat honetan, 10:00etatik 13:00etara. Jone Arrospidek (Donostia, 1958) zuzenduko du ikastaroa. Euskadiko Ibilaldi Nordikoko ordezkartzeko kidea da Arrospide, eta Anoetan, hainbat ikastaro emana da. Oinez ibiltzeko teknika honen inguruko informazioa www.nordicwalkingeuskadi.com webgunean dago.

Nolatan sortu zen ikastaroa Anoetan emateko aukera?

Anoetan urte asko daramatzat ikastaroak ematen: yoga, elikadurari buruzkoak, emakumeen ingurukoak... Ibilaldi nordikoren inguruko ikastaroa ematea ondo egongo zela iruditu zitzaidan, eta udaberriean, udalari aukera hori eskaini nion. Ongi iruditu zitzaizen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzat bat tarteko, ikastaroa antolatzeko era baki genuen.

Zer behar da ikastaroan parte hartzeko?

Ezer handirik ez: oinez ibiltzeko bideak eta bi makiltxo.

Norentzat zuzendurik dago ibilaldi nordikoko ikastaroa?

Denentzat. Egia da emakumeak ibiltzen direla gehienbat paseoan, eta ibiltzeko teknika honek dituen abantailak oso onuragarriak direla eurentzat, batez ere, adin jakin batetik aurrera. Menopausiaren ondoren, hezurretako minak eta abar izaten dituzte emakumeek. Ondorio horiei aurre egiteko oso egokia da ibilaldi nordikoa, gorputz guztia lantzen delako oinez paseoan ibiltzeko teknika honekin. Hala eta guztiz ere, lehen esan bezala, ikastaroa mundu guztiari zuzendua dago.

Zehatz mehatz, teknika honen onurak zeintzuk dira?

Osasunari asko laguntzen dio. Normalean, ibiltzen zarenean gerritik beharako zatia lantzen duzu, baina ibilaldi nordikoan, gerritik gorakoa ere lantzen da: bizkarrezurra, giharrak, lepoa... Bizkarrezurra zuzendu eta luzatu egiten duzu, zama kenduaz. Artikulazio guztietan eragiten du oinez ibiltzeko teknika honek: gerrian, belaunetan, bizkarrean...



HITZA

Bihotzari ere eragiten dio, lateralitatea lantzean, masajea ematen baitio. Ondorioz, odola gorputzeko zati guztietara erosoago iristen da, oxigeno gehiagorekin. Esan beharrik ez dago, garunera oxigenoa erosoago iristen denean, memoriarentzat lagungarri izaten dela. Onurak besterik ez dituen teknika da ibilaldi nordikoa.

«Ikastaroa paseoan ibiltzea gustatzen zaien guztiei zuzendua dago»**«Teknikak oinarrizko zapi pauso ditu, eta guztiak ikasiko ditugu banaka-banaka»****Larunbateko ikastaroa, hiru ordukoa izango da.**

Horrela da. Aurrez, bi orduko aurkezpen bat egin genuen. Orain oinarrizko ikastaroa izango da, eta hor, teknika pausoz pauso aztertuko dugu, hain zuzen ere, Alfa Nordic Walking izenekoa.

Nondik dator paseoan ibiltzeko teknika hori?

Andreas Wilhelm alemaniarrak garatu zuen teknika hau. Europa iparraldeko herrietara joan zen Andreas, bertako fondoko eskia-tzaileen entrenamendua gertutik jarraituz. Elurrik ez zegoen ga-

raietan, entrenamendua horrela egiten zitzuten, baina teknika oraindik guztiz zehatu edo garatu gabe zegoen. Andreas medikuak, fisioterapeutak, fisikoak... eramane zituen teknika ikusi eta garatzera. Horrela sortu zen Alfa Nordic Walking, azterketa sakon baten ondoren.

Ikastaroan teoria eta praktika landuko al dituzue?

Ikastaro guztia praktikoa izango da, hasi eta bukatu. Oinarrizko zapi pauso ditu teknikak, eta guztiak ikasiko ditugu. Horren barruan, ibiltzeko teknika soil bat ez dela azpimarratu behar da. Komunikazioa joratzeko aukera ere bada ibilaldi nordikoa. Ibilzerakoan jendearekin elkartzen zara, eta hortik harremanak sortzen dira. Jolasak ere sartzen dira, eta makilak erabiltzen ikasteko, eta baita fitness ariketarak egiteko ere. Ikastaroan guzti hori landuko dugu.

Beroketa ariketak eta guzti egingo dituzue, beraz.

Hori da. Lehen esan bezala, lateralitatea asko lantzen da, ezker eskuin mugitzen da, eta hori nahiko galduta daukagun mugimendua da. Pixkana ohitzen joango gara jolasen eta abarren bitartez. Ez da ahaztu behar, mugimendu horrekin garunaren bi aldeak lantzen direla. Hori ere oso gomendagarria da osasuntsua da.

Txakolina dastatzeko eta ezagutzeko aukera egongo da Larraulen

Kultur astearen barruan, Juan Mari Beltran hirukotearen emanaldia antolatu dute biharko

A. Imaz Larraul

Larraulgo Kultur Astea aurrera doa, eta gaurkoan, txakolina izango da protagonista. Alde batetik, dastatzeko aukera egongo da, eta bestetik, Maitane Barrero etnolagoaren aholkuak entzungo dituzte bertaratzten direnek. Txakolina dastatze komentatua 19:00etan egingo dute, Katillu Txulo elkartearen.

Bihar, ostirala, 17:00etan umeentzako merienda antolatu dute, elkartearen. Ondoren, eskulanak egiteko aukera izango dute haur eta gaztetxoek. Juan Mari Beltranen hirukoteak 19:30ean eskainiko du emanaldia. Horrekin batera, Euskal Herriko musika eta soinu tresnak ikusteko aukera egongo da San Esteban elizan. Eguna amaitzeko, 21:00etan, he-

rri afarria egingo dute. Txiki Martin eta Barry Manley bertan egongo dira, afalostearen giro euren bazarriketekin alaitzeko.

Asteburu oparora

Larraulgo Kultur Astea igandean amaituko da. Bezperan, larunbatean, ekitaldiak goizean hasiko dira. 09:30ean, Dina 7 taldeak egurrak nola lantzen den erakutsiko du. 13:00etan, Bolatoki ondoko murala aurkeztuko dute herritarrek, eta 16:00etan, musean jokatuzera joango dira. Aho soinu erakusketa ordu erdi beranduago zabalduko dute, 18:00ak bitarte. Ordu horretan hasiko da lanean Teresa Lopez de Munia inpuin kontalaria, kultur etxean.

Azken egunean mendira joango dira. 10:00etan emango diote irteera herrian barrena egingo duten itzuliari. 16:00etan pilota partidak antolatu dituzte frontoian eta 18:00etan talo eta gaztaina jatea, Katillu Txulo elkartearen. Bezperan bezala, museoan, Aho soinu erakusketa gozatzeko aukera egongo da, baita egutegiko argazkien aukeraketa egitekoa ere.

Asvinenearen 'Kbaret' ikuskizuna, bihar

Hirugarren aldia da, eta bost ikuskizunekin osatuko dute jaialdia; 22:00etan hasiko da Adunako egoitzan

A. Imaz Aduna

Adunako Asvinenea arte eszenikoaren laborategiak III. *Kbaret*a antolatu du. Abenduaren 30ean, bihar, izango da, 22:00etatik aurrera. Aurtengoa musikaz, kolorez eta umorez beterik datorrela

azaldu dute Asvineneatik. Tolosaldeko Nazioarteko Txotxongilo Jaialditik, Roberto White eta SOS Titelles ikuskizuna joango da Adunara. Ezustekoaren artean kokatu dute Whiten ikuskizuna.

Txotxongiloekin batera, Big Boy-ren musika, Zapatisten Ipuinak, Besoake-en dantza garaikidea eta Soka! taldearen Zirkon instrumentalez gozatzeko aukera egongo da III. Kbaretean.

Asvineneatik, eskualdeko herrietarrek Zubitxikiko Industrialdera gonbidatu dituzte; jaiarekin gozatzera eta bat egitera.

→ Laburrak

Behar Zanako bikoteak Udazkeneko finalean

VILLABONA ◉ Gomazko paletan hainbat txapelketen finalak jokatu dira asteburu honetan. Udazkena txapelketari dagokion finalean, Donostiako Gaska trinketearen, eskualdeko pilotariak ariko dira Villabonako Behar Zanaren izenean. Finala abenduaren leian, larunbatean, jokatu da, eta partida 17:45ean hasiko da. Behar Zanako bikoteak Real Sociedad len aurka jokatu dute.

Pello Zelarainen inguruko mozioa eztabaidagai, gaur

AMASA-VILLABONA ◉ Udaltzatzak ez ohiko batzarra egingo du gaur, 12:00etan. Santiago Egoitzako hirugarren faseari dagozkion obren proiektu teknikoan onartzeaz gain, Pello Zelarain presoaren inguruko mozioa eztabaidatuko dute.

Kirola egin, herritik atera behar izan gabe

Tolosaldeko bultzatuta, herri txikietako areto futbol txapelketa antolatu dute Gipuzkoan

Imanol Garcia Landa

Herri txikiek hainbat zailtasun dituzte kirol munduan; besteak beste, bertako haurrek herri handiagoetara joan behar izaten dutela araututako lehiaketatan aritzeko. Egoera horri buelta emateko, Gipuzkoako Herri Txikietako Areto Futbol Elkarteak sortu dute, Tolosaldeko sortutako ekimen baten ondorioz. Ikaztegiaren bizi den Jon Leunda da elkarteko idazkaria. «Tolosan jokatzeko den Shanti Torneoan sortu zen zerbaiteko ideia», azaldu du Leundak. «Ikaztegiatik talde bat eramateko, adin ezberdinetako haurrak eraman behar dituzu eta adin nagusienaren mailan lehiatu behar duzu. Egoera horretan herri txikiek handiekin ez dute zereginik. Abaltzisketatik eta Ametzketatik talde bana joan zen, eta haiekin gaiaz hitz egin ondoren, zerbaiteko pentsatu genuen».

Abaltzisketarrek berehala interesa agertu zuten eta ikaztegi-takoekin partida bat jokatu zuten. «Nolabait ideia horri forma ofiziala eman behar zitzaiola ikusi genuen», dio Leundak. Hortik aurrera, aurreko denboraldian lehenengo aldiz antolatu zuten herri txikien arteko txapelketa. Bertan 1.100 biztanlekin behera dituzten herriek parte hartu dezakete.

Helburua argi dute: «Haurrak herrian geratzea, herrian taldea sortzea, herriko jendearekin jolastea. Azken finean, herrian giroa sortzea, eta haremanak egitea herriko haurren eta gurasoen artean». Bigarren denboraldia da txapelketa martxan dagoela eta haurrek harreman mantentzen dutela eta giro polita sortu dela dio Leundak.

Lehenengo urtean sei talde aritu ziren ligan: Ikaztegieta, Beraste-



Ikaztegieta eta Leaburu-Txarama taldeetako jokalariek, pasa den asteburuan ikaztegiaren frontoian. HITZA

giko bi, Gaintza, Abaltzisketa eta Lizartza-Orexa. Kopa ere antolatu zuten eta bertan hamar talde inguru aritu ziren. Ligako finala Lizartzan jokatu zuten eta 500 pertsona izan ziren ikusle moduan. «Euskal Herriko selekzioak ere izan ziren, mutilak eta neskek, eta oso polita izan zen», azaldu du Leundak. Kopako finala Berastegin jokatu zen eta hainbeste 500 pertsona inguru ere izan zirela dio. «Ikusi genuen nolabaitko jarraipena eman behar geniola», gaineratu du Leundak.

Parte hartzerari animatu

Haurrek eskola kirola egiten dute eta horrez gain txapelketa horretan parte hartzen dute. «Ikusten genuen haurrak herri handietako taldeetara joaten zirela, eta orain horietako asko herrian geratu dira, bere herrian jolasteko. Beste giro bat sortzen da. Berastegin ere bere herriko izena eramateko bereziago egingo zaiela

pentsatzen dute», esan du Leundak.

Txapelketan giro ona izaten dela dio Leundak: «Lizartzan, adibidez, lehenengo jardunaldian Lizartza-Orexako bi taldeen arteko partida izan zen eta 400 pertsona elkartzeko neurketa ikusteko. Oso zaila da hainbeste jende elkartzeko helduen areto futbol ikusteko, edo futbola bera ikusteko ere».

LHko laugarren, bosgarren eta seigarren mailako haurrek parte hartzen dute. Bost talde daude aurtengoa denboraldian: Lizartza-Orexako bi talde, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama eta Abaltzisketa. Gabonak baino lehen talderen baten izena eman nahi badu, horretarako aukera du. Beste taldeekin parean jartzeko, zenbait asteburutan bi partida jokatu beharko lituzkete, baina ez zen arazorik izango, antolatzaileek azaldu dutenez.

«Guk nahi duguna da ahalik

eta herri txiki gehienak parte hartzea, txapelketak jarraipena izateko», esan du Leundak. Ilusioa sortu duela, baina inplikazio ere behar duela nabarmendu du Leundak: «Jende askok esan digu ekimen polita dela, baina gero lanerako orduan ez dira animatzen. Ez badugu denon artean lan egiten, txapelketak ez du aurrera egingo». Guztia antolatzekeo laguntza behar dutela dio: «Bost-sei pertsona gaude antolakuntzan eta bakoitzak bere herriko taldea eramaten du. Batez ere herri gehiago inplikatzeko gustatuko litzaiguke». Talde bat osatzerakoan ez da derrigorezkoa partaide guztiak herri batekoak izatea; hori bai, partaide guztiak herri txikietakoak izan behar dute.

Urtarrilean ere beste maila batean txapelketa antolatuko dute, hau da, LHko lehen, bigarren eta hirugarren mailako haurrekin osatutakoa. «Ahal dela neskek eta mutilak osatutako taldea izan

tea gustatuko litzaiguke», esan du Leundak. Abenduaren 17a arte dago aukera izena emateko. Etorbizunera begira, kadete mailan eta senior mailan ere antolatu nahi dituzte txapelketak.

Abian jarri duten beste modalitate bat mikrofutbol da, hau da, hiru hiruren aurka jokatzeko dena. Denboraldi honetako txapelketan geldialdi bat egingo dute, nolabait mikrofutbol zirkuitu bat antolatzeko, eta talderik ez duten herri txikietara joateko, ikus dezaten eta parte hartzera animatzeko.

AMF federazioa

Leundak garbi utzi du sortu duten elkarteak AMF federazioaren barnean dagoela. Bi federazio daude, batetik, FIFA futbol federazioaren barne dagoena eta areto futbolari bertako adar moduan hartzen dutena. Federazio horren barne daude eskualdeko helduen taldeak, Hirugarren mailan jokatzeko Ibarra, Laskorain, Tolosala eta Egintza, adibidez.

AMFk, bere aldetik, areto futbola bere horretan kirola dela dio. Araudirik ez dago guztiz berdinak, baina oso antzekoak direla dio Leundak. Bestalde, AMFn euskal federazioa independente dela dio eta, beraz, bere selekzio propioa duela eta nazioarteko txapelketetan parte hartzeko aukera duela. Taldeen arteko Europako Txapelketak ere jokatzeko direla gaineratu du. Aretoko futbolari futbolariek denon artean deitzen diote eta, hain justu, AMFk Munduko Futbolariek Elkarteak esan nahi du. Herri txikietako txapelketan parte hartzen duten guztiak beren fitxa eta segurua dutela nabarmendu du Leundak.

Euskal Herrian ez dago helduen ligarik, Katalunian ez bezala. «Federazio honetan egongo gero, Ibarra eta beste taldeak euskal ligako lehen mailan egongo ziren eta gero Europan jokatzeko aukera izango lukete», dio Leundak. «Euskal selekzioarekin ere parte hartzeko aukera izango lukete talde horietako jokalariek nazioarteko mailako txapelketetan».

Mauka GAIURKO ESKAINTZA

2 lagunentzat
2 gau Goierri
(gosaria barne)

MUTLOAKO OSTATUA
MUTLOAKO OSTATUA
MUTLOAKO OSTATUA

72€

www.mauka.eu

berria

TXOKOR HITZA

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Abenduak 2 • Igandea 12:15
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Caja Laboral
saskibaloia partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Genero indarkeria aztertzen ari dira, bigarren urtez, Aralar institutuan



Urtxintxa eskolako hezitzaileak, aurreko ostiralean, Aralar institutuko gela bateko ikasleekin. I.G.L.

Alegiako Udalak bultzatuta, hezkidetzako proiektua abian jarri dute DBH3 eta DBH4 mailatan

Imanol Garcia Landa Alegia

Genero indarkeriaren prebentzioa egiteko hezkidetzako programa abian jarri dute Aralar institutuan bigarren urtez, Alegiako Udalak bultzatuta. Besteak beste, sexuaren eta generoaren estereotipo eta rolak aztertzea eta nola eragiten duten ikastea, maitasun ereduak aztertzea eta lanbideetan ematen den diskriminazioaz kontzientziatzea du helburu programak.

Berdintasun legea 2005an sortu zen eta lege horrek udalei eskumen batzuk ematen dizkie. Alegian berdintasunaren inguruko diagnostikoa egin zen, eta ondorioetako bat udalaren eginkizuna gaiaren inguruan informatu, sentsibilizatu eta formakuntza eskaintzea izan zen. «Horren barruan ikusten zen hezkuntza zentroekin hezkidetzako proiektua martxan jartzea, ikasle, irakasle eta gurasoekin lan egiteko», azaldu du Agurtzane Lopetegui udaleko gizarite laguntzaileak.

Aurreko urtean egin zen lehenengo aldiz, eta aurten DBH3 eta DBH4 mailetako ikasleekin lantzen ari dira gaia. Irakasleak ere formatzen dira eta gurasoei ere informazioa ematen zaie. «Gurasoei esplikatzeko zaila da zertan duten ikasleekin, etxeetan ere ikus-

pegi berdina izateko, eskolan landu duten ildo beretik», zehaztu du Lopetegui.

Gurasoek ere azaldu izan dute formakuntza behar dutela, eta udaletik pentsatu zen aurten gurasoekin zerbait sakontzea, baina aurrekontuak ez du oraingo horretarako aukera eman. «Proiektuaren %75a foru aldundiak jartzen du eta beste %25a Alegiako Udalak. Agian datorren urtean gurasoekin ikastaroren bat egiteko aukera izango dugu», esan du Lopetegui.

Unai Iraola alkateak azaldu duenez, aurreko udal gobernuak jarri zuen gaiaren inguruko laneketa abian: «Guk horri jarraipena eman diogu. Ez gara zerotik hasi, baizik eta egindako lanarekin jarraitzeko asmoa dugu».

Prebentzioari eman dio garrantzia Iraolak: «Nerabeekin hezkidetzako gaiak lantzen direnean, kontzientziatze puntu bat hartu ohi dute, hau da, zer den indarkeria estukturala, zer diren tratatu txarrak, fisikoak eta psikologikoak, bikote harremanetan zein diren maitasun harreman sanoak eta zein diren suntsigarriak... Horrelako baloreak pixkana hezkuntza alorretik sartzen hasten ikusten dugu».

Aralar institutuan, Alegiako ikasleez gain, inguruko beste hainbat herritako ikasleak ere badaudela nabarmendu du Iraolak, eta horrek herri horietako nerabeek ere formakuntza jasotzea ahalbidetzen duela.

Aurrera begira proiektuarekin jarraitzeko asmoa azaldu du Alegiako alkateak: «Gai hori gure le-

hentasunen artean dago. Ea aurrera begira eskoletan horrelako programak finkatzen diren. Oinarrizko beharra dela uste dugu».

Indarkeria sutila azaleratzea

Iñaki Begiristain Aralar institutuko orientatzaileak azaldu duenez, «iaz proiektua egin ondoren, ikusi genuen formakuntza luzeago egitea komeni zela, eta DBH3 eta 4 koei zuzendutako formakuntza egingo da aurten». Urtxintxa eskolako Irati Tobar eta Ibai Fresnedok ari dira ikasle formakuntza saioak bideratzen. DBH3 mailan genero indarkeria lantzen ari dira, eta DBH4 mailan lan mundurako orientazio ez sexita.

Hirugarren mailan, besteak beste, generoaren eraikuntza nola egin den, eta zernolako genero rolak eta estereotipoak erreproduzitzen diren pertsona moduan landuko dute. Hortik abiatuta, jendeartaratze prozesuak aztertuko dituzte, hau da, nola hazten den emakume edo gizon izanik, eta nola eraikitzen diren bakoitzaren errealitate guztiak, bai harremanetan, bai familian, bai eskolan... Horren ondoren, harremanak eta zernolako botere harremanak ematen diren aztertuko dituzte. Harremanak aztertuta, zernolako indarkeria motak ematen diren ikusiko dute, eta nola batez ere gazteek indarkeria fisikoa identifikatzen duten. Fresnedok azaldu duenez, «guk garrantzi gehiago ematen diegu beste indarkeria motei, sutilagokoak direnei, edo azpian daudenei, eta horiek azaleratu egiten ditugu».

Lanketaren amaieran indarkeria sexistaren definizioan sartzen dira eta kontzientziatzea egiten saiatzen dira. Azkenik, egoera errealeak eta irtenbideak jorratzen dituzte. «Saio bat erabiltzen dugu neskek eta mutilak banatzeke, gaia ez baitugu berdin bizi», azaldu du Tobarrek. «Neskek gara indarkeria jasotzen dugunak, eta mutilak ez dira batzutan horren parte sentitzen edo gaia urrutitikusten dute. Zaila izaten da kontzientziatzea lortzea talde mistoetan hitz egitean. Garrantzitsua da konfiantza espazio bat ematea, gelan zernolako indarkeriak ematen diren azaleratzea. Geletan eraso asko ematen dira, eta horiek identifikatzea beharrezkoa da. Neska batek ez du zergatik onartu behar isekak jasotzea».

Laugarren mailan lanbide orientazio ez sexista lantzen ari dira. Genero rolean hasi ondo-

Proiektuari jarraipena emateko asmoa azaldu du Unai Iraola alkateak

ren, emakume eta gizon izateak sortzen dituzten bereizketak landuko dituzte, batez ere lanbide bat aukeratzeko. Lan munduaren eta hezkuntza munduaren azterketa egingo dute, emakumezkoak arlo sozialera eta gizonzkoak gehiago arlo tekniko edo zientifikora joaten direla ikusteko. «Helburua gutxieneko kritikotasun maila bat lortzea da, zer izango diren edo zertan lan

egingo duten erabakitzerakoan», esan du Fresnedok.

Tobarrek azaldu duenez, «beste eskola batzuetan pertsonai baten etorkizuna irudikatzea egin izan dugu, eta modu inkonziante batean erreproduzitzen dira bai lanbideak, bai familian zer paper izango duen bakoitzak, nolako denbora libre izango duen... Azkenean gazteak konturatzen dira estereotipoak erreproduzitzen direla, eta kontuan hartu behar dute aukera gehiago badaudela».

Horrelako gaia lantzerakoan, aurrean hainbat zailtasun izan ohi dituzte hezitzaileak. Fresnedok dioenez, «mutilek askotan ez dute kontzientzia izaten indartsuak izateko, emoziorik ez elkarbanatzeko, mundu emozional hori ez garatzeko hezitu gaituztela. Askotan mutilek ez dute ikusten normalean indarkeria praktikatzen dugula, berdin artean, edo neska batekin. Askotan erresistentziak ditugu mutilen partetik, hau guztia azaltzerakoan, erasotzak sentitzen direlako. Baina kontua da patroia zehatz batzuk aurrera eramaten ditugula eta era inkonziante batean praktikatzen ditugula». Fresnedok gaineratu duenez, «neskek, bere aldetik, estukturala denean eta oso sutila denean ez dakite ondo identifikatzen noiz den indarkeria».

Tobarrek dioenez, «jendartearen zabaldua dago eskubide berdintasuna dugula eta berdintasun bizi garena, eta errealitatean ez da horrela, eta modu sutilean gertatzen da hori. Gero eta sutilagoa bihurtzen da, eta hezitzaileentzat identifikatzea zaila da, bada imajinatu gaitheetzat». Gazteen diskurtsoa izan ohi da eskubide berdina dituztela esatea. «Baina errealitate aztertzen dugunean, konturatzen gara espazio desberdinak ditugula... Teoria abstraktua egiten zaie eta gero kasu praktikoak aztertzea zaila egiten zaie», esan du Tobarrek.

Egunerokotasunaren genero indarkeriaren zantzu sutilak aurkitu daitezkeela azaldu dute Urtxintxako hezitzaileak. Tobarrek hori erakusten duen adibide bat jarri du: «Mutil batzuk neskekin erlazionatzean, ez daudenez ohituta kontaktura, edo emozioen inguruan hitz egitera, edo galdetzeraz zer moduz zauden, adibidez boligrafoa kenduz erlazionatzen dira. Hori ez da erlazionatzeko modu naturala. Gero neskek boligrafoa itzultzeko eskatu eta mutilak bortitiz jartzen dira. Horren aurrean tentsioa eta gatazka sortzen da, eta azkenean neska boligrafoa indarkeriaz bereganatzen saiatu daiteke. Zer ondorio ateratu ohi dute mutilek egoera horretatik? Bada, neskek jo egin diola, edo iraindu egin diola, hausnartu gabe, guztia hasi dela erlazionatzerakoan gabeziak izan dituelako».

Latinoamerikarren jakiak eta dantzak, etzi Atekabeltzen

Euren kultura eta gastronomia erakutsiz etorkinak integratu eta gizarteratzea du helburu ekimenak

Iñigo Terradillos Leitza

Festa berezia egingo dute etzi, Leitzako Atekabeltz gaztetxean. Latinoamerikako festa izango da, eta bertako jaki eta dantza ohikoak izango dira protagonista. 18:30ean hasiko da, eta nahi duen orok parte hartu ahal du.

Leitzan bizi eta Latinoamerikako jatorria duten herritarrengandik sortutako ekimena izan da, «euren kultura eta gastronomia erakusteko aitzakian, elkar eza-

gutzeko helburuarekin». Leitzan urte ugari daraman Osvaldo Paez kubatarra da festaren antolaketan aritu denetako bat. Berak azaldu duenez, festa honek Leitzan bizi diren etorkinen «integrazioa eta gizarteratzea» bilatzen du. Horregatik, herriko hegoamerikar jendeak parte hartuko du, hala nola, kubatarrek, kolonbiarrek eta ekuadortarrek, eta baita euskaldunek ere.

Batetik, Latinoamerikako lurralde hauetan ohiko diren jakiak dastatzeko aukera izango da, eta bestetik, bertako musikarekin giroa dute festa, eta noski, dantzarako tartea ere izango da.

«Mahaiaren bueltan jarriko gara, solas egingo dugu, elkar ezagutu... eta ondo pasako dugu, musikarekin eta dantzarekin,

jendeak nahi duenera arte», dio Paezek.

Herrimina

50-60 hegoamerikar inguru bizi dira egun Leitzan. «Bere lurraldean bizi ez den orok sentitzen du herrimina, eta horregatik festa honek gure lurretatik gertuago sentitzea ere badu helburu moduan», adierazi du Leitzan bizi den kubatarra. Hori bai, Leitzan «oso gustura» dagoela dio. «Ez nuke Leitza baino leku hobirik aurkituko, familiako bat bezala hartu naute, eta oso pozik bizi naiz hemen».

Festa honetan parte hartzera gonbidatzen ditu herritar guztiak, eta ekimena antolatzen lagundu dieten guztiei eskerrak eman dizkie.



Maider Mendizabal anoetarra, partidetako batean. HITZA

Eskualdeko lau pilotari I. Napar Pala Txapelketan

Estreinakoz antolatuta dute Nafarroan, eta emakumezkoen gomazko pala sustatzea da helburua

I. Terradillos

Emakumezkoen I. Napar Pala Txapelketa hasiko da igande honetan. Elite eta lehenengo mailako hamabi bikote ariko dira lehian, eta tartean, Tolosaldeko eta Leitzaldeko lau pilotari: Maider Mendizabal anoetarra, Iera Agirre leitzarra, Nagore arorena lizartarra eta Ainhoa Garmendia alegiarra.

«Emakumezkoen gomazko pala sustatzea» du helburu estreinakoz egingo duten txapelketak. Gaur egun pilotan aritzen diren Euskal Herriko emakumezko onenatarikoei hartuko dute parte, eta horrela Nafarroako afiziorri emakumezkoek pilotan hartu duten maila erakutsi nahi diotela adierazi dute antolatzaileek. Bestalde, lehenabiziko urtea du txapelketak, eta jarraikortasuna izatea da euren xedea.

Eskualdeko pilotariei dagokienez, Maider Mendizabalek Rebecca Contin nafarrarekin osatuko du bikotea, Iera Agirrek Claire Bordagaray behe nafarrarekin eta Nagore Arozenak Amaia Irastabarrena gipuzkoarrarekin. Hauek elite mailan ariko dira. Ainhoa Garmendia, berriz, lehenengo mailan ariko da, eta Saioa Aristorena nafarrarekin osatuko du bikotea.

Partidak abenduko igande guztietan jokatuko dituzte. Lehenengo igande honetan izango da. Ezkarozen eta Otsagabian jokatuko dituzte partidak. Mendizabal-Contin bikoteak Etxarri-Mendizabalen aurka jokatu du Ezkarozen. Agirre-Bordagaray Anduela-Munetaren aurka ariko dira Otsagabian. Garmendiak eta Arozenak atseden izango dute asteburu honetan.

Txapelketa hiru jardunalditan jokatu da, guztiek guztien aurka egingez. Maila bakoitzak bi talde izango ditu, eta talde bakoitzeko bi bikote sailkatuko dira. Finalerdiak Etxarri-Aranatzen eta Altsasun jokatuko dituzte, eta finalak abenduaren 30ean izango dira, Iruñeko Labriten.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, Atekabeltzen

I. Terradillos Leitza

Euskal Herriko Mus Federazioak antolatuta, abian da aurtien ere Euskal Herriko Mus Txapelketa. Leitzako Atekabeltz gaztetxean jokatu dute bihar, 22:00etatik aurrera, Leitzako lehen kanporaketa. Bigarrena, abenduaren 3an izango da Torrea tabernan, 18:00etan; hirugarrena, abenduaren 15ean, Peritzan, 17:00etan, eta laugarrena, abenduaren 23an, Aurrera elkartearen, 17:00etan.

Leitzako finala abenduaren 30ean jokatu dute, Torrean, eta kanporaketetan sailkatutako launa bikoteren artean jokatu da. Txapela eta axuria irabaziko dute txapelak, lau txuleta bigarrenak, bi oilasko hirugarrenak eta bi gazta laugarrenak.

Herrian etxebizitzaren beharra dagoen aztertuko dute Areson

Abenduaren 14ra arte galdetegi bat bete ahal dute, Areson etxebizitza erosteko interesa dutenek

I. Terradillos Areso

24 etxebizitza egin nahi dituzte Areson, herriaren sarreran, Patxi-kunea etxearen parean dagoen lur sailean. Zortzi etxebizitzadun hiru eraikin aurrekusten ditu udalaren proiektuak, baina, mar txan jarri aurretik, azterketa bat egin behar dute herrian une honetan dagoen beharra ikusteko.

Bada, etxebizitza horiek erosteko interesa izango lukeen edonork, aresoarrek zein kanpokoek, Aresoko udaletxera jo behar dute galdetegi txiki bat betetzera.

Abenduaren 14ra arte egongo da egiteko aukera, eta bertan, etxebizitza mota hori erosiko lukeen, eta hala balitz zein epetan erosiko lukeen zehaztu beharko du interesatuak.

Galdetegietako emaitzen arabera jakingo du udalak herrian etxebizitza horiekiko interesa dagoen ala ez, eta baiezkotako balitz, Nafarroako Gobernuak baimena emango lioke proiektuari ekiteko. Aresoko Udalak proiektu hori aurrera eramateko asmoa du, «modu horretan Aresoko gazteak ez direlako beste herrietara joango etxebizitza erostera, bertan geratu eta modu onean erosi ahal dute».

Proiektuak hiru eraikin aurrekusten dituen arren, ez lirake guztiak batera egingo. Unean uneko behararen arabera eraikitze asmoa du Aresoko Udalak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



10°
6°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	11°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra/Leitza: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!

Auritze Gorostegi eta Inaxi Agirrezabala (Abaltzisketa-Ugarte). Auritzek urtebete azaroaren 6ean eta birramona Inaxik 90 urte bete zituen azaroaren 25an. Zorionak bioi eta segi horrelaxe, elkarrekin jolasean urte askoan.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

Irudia Villabona-Zizurkil



EKITALDI UGARI, ESKOLETAN

Villabonako Fleming ikastetxeko 5 urteko ikasleak Donostiako Aquariumera irteera egin berri dute (lehen irudia), eta arrain mota berri asmo ikasteko aukera izan dute. Jesusen Bihotza ikastolako HH5 mailako ikasleak, aldiz, udazkena hartu dute gaitzat, eta zuhaitzen izen eta fruituak, perretxikoen izenak, eta abar ikasi dituzte. Ondoren, erakusketak bat ere antolatu dute (bigarren irudia) eta beste geletako ikasleek ere ikusi ahal izan dute. HITZA

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa-Leitza.** Araian (Arab) eraildako emakumea dela eta, Emakumeen Mundu Martxak elkarretaratzera deitu du gaurko; 19:00etan Tolosako rianguloan eta 20:15ean Leitza-ko Lopeneko biribilgunean.

■ **Villabona.** 2012ko aurrekontuen balantzea egiteko bilera egingo du gaur, udalak. Saioa gaztelaniaz izango da, 19:00etan, Subijana Etxean, eta herritar guztiei irekia da.

■ **Larraul.** Kultur astearen barruan, gaur, 19:00etan txakolin dastatzea Maitena Barrero enologoaren eskutik, Katillu Txulo elkartean.

■ **Tolosa.** Sortu berri duten Iristaka patinaje taldearen bilera, gaur, 20:00etan, kultur etxean.

■ **Ibarra.** *Nasrudin eta bere as-toa* ipuin kontaketa saioa egingo dute gaur, 17:30ean, kultur etxean, 6 eta 10 urte arteko haur-erentzat, euskaraz eta arabieraz.

■ **Albiztur.** Berdintasunaren inguruko gogoeta egingo dute, gaur, 15:00etan, udaletxean.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Bonberenean, gaur, *Gazta zati bat*, 19:00etan.

■ **Tolosa.** *La extraña gaur*, zine forumaren barruan, 19:15ean eta 21:45ean.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Orbelako Gauak ekimanageren barruan, gaur, Iban Nikolai eta bere didgeridooa, 22:30ean.

TXOTXONGILOAK

■ **Tolosa.** Titirijaren barruan, gaur, ikasleentzako emanaldiak 11:00etatik 14:00etara: Leidor aretoan *Blue Bird*, Topic zentroan *Chodudú*, eta kultur etxean *Siete cabritillos y el lobo*.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13. Gaueko: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Gorrotxategi sorta Bost turroi sorta

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Plaza zaharra, 7. TOLOSA
Tel.: 943 67 07 27 / 943 65 12 26
www.gorrotxategi.com



2 Fronton jatetxea Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

San Frantzisko ibiltokia, 4
Tolosa
Tel.: 943 65 29 41
www.restaurantefronton.com



3 Berria 2013 agenda Bi agenda

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



4 Eureka zientzia museoa Bi lagunentzako bina sarrera

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel.: 943 01 24 78
www.eurekamuseoa.es



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte eta asteazken goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.